

Ipar Euskal Herriko indar politikoak

Jon-Luis Davant

Alde batetik bereiziko ditut bozetan agertu direnak eta ez direnak; bestetik, hauen artean, indar abertzaleak eta frantses alderdiak (edo Estatu mailakoak).

I. — BOZETAN AGERTU DIREN INDARRAK

Demokrazia burges batetan, garrantzi handia dute hauteskondeek. Bistan dago frantsesa dela, eta ez euskalduna, Frantziako Estatuan duguna. Berez, oso alor gaiztoa dukegu abertzaletasunaren hazteko. Gainera, oztopo egiteko ahal dituen baldintza guztiak jarriko dizkigu.

Beste Estatu batzutan ere ikus daiteke, munduan zehar, bozetan zein nekez azaltzen den Herri menderatu baten abertzalegoa. Adibidez Belgikako Estatuan flamandar mugimendua, praktikan nagusitzera iristen delarik, minorian egoten da hauteskundeetan. Ez dugu harritu behar baldin ipar

Euskal Herrian, askoz ere berriagoa eta ahulagoa izanez, biziki apalago agertzen bada gure mugimendua.

Dena dela, Frantziako herritar guztiak lau bozketa-mota berezitara deituak gara. Hauek dira:

- Herriko bozak (Udalekoak).
- Kontseilu jeneralekoak (Departamendu edo Probintzia ofizialeko deputatuenak).
- Pariserako deputatuen hautatzekoak.
- Errepublikako Lehendakari edo Presidentearen aukeratzekoak.

Pariserako deputatuenak dira, noski, politizatuenak; beren indarrak hor dituzte hobekienik azaltzen alderdiek. Herriko bozetan, edozein motatako batasunak antolatzen dira udaletxeaz jabetzeko: herri ttipietan pertsonen artekoak, bide nabari guztietarik at; herri haundietan berriz alderdien artekoak, bat-bederaren eragina lanbroetan utziz.

Departamendukoak berriz, jaunen arteko norgehiagoketa bazuk dira anitzetan, guztiz Euskal Herrian, eskuineko (eta baztutan ezker epeleko) jaunttokeria nagusiturik baitugu aspaldian.

Presidentziarakoetan, azkenik, Estatu mailako bi bloke haundien artean jokutzen da guztia, bigarren itzulian segurik. Tokiko indarrak ez dira bederazka nabaritzen, ez beti bederen: abertzaleak behintzat hastetik itoak gertatzen dira zentralismoaren olinpiada horietan.

Beraz ene lanaren zati hau, Parlamenturako bozetan oinarrituko dut gehien bat, eta bereziki azken hiru jokaldietan: 1967, 1973, 1978.

Badakigu Ipar Euskal Herriak legezko izaterik ez duela eta Biarnoari loturik dagoela Pirene-Atlantiketako Departamenduan (Probintzia ofizialean). Lau deputatu baditu Departamendu hunek: biga Biarnoan, biga Euskal Herrian (bata Baionakoa, hau da, itsas aldekoa; bestea Maulekoa, hau da, barnekoa).

Deputatu gaiak bederazka azaltzen dira. Lehenbiziko itzulitik nagusitzeko boz-emaielen gehiengoak bildu behar du batek. Ez bada hori lortzen, bigarren itzuli bat egiten da, eta hor garaile ateratzen da boz gehienik duena, besterik gabe.

Hona Beraz Parlamenturako azken hiru bozketek zer eman diguten Iparaldean.

BOZKETAK

Itsas aldean		Barne aldean	
1967ko BOZKETAK			
Boz			
emaileak	87.940		51.833
Agertu di- renak	70.007 (%79,60)		40.216
Hautu bat eginez	68.945 (%78,40)	61.421	39.720 38.928
	1. itzulia	2. itzulia	1. itzulia 2. itzulia
MARIE	25.696	32.382	INCHAUSPE 19.385 21.924
(U.N.R.)	(%37,21)	(%52,72)	(U.N.R.) (%48,80) (%56)
GRENET	22.006	29.039	LABEGUERIE 13.626 17.004
(Radical)	(%31,91)	(%47,28)	(Erdikoa) (%34,28) (%44)
LABROUSSE	9.090		BLASQUIZ 1.398
(P.C.F.)	(%13,18)		(P.C.F.) (%3,52)
HARAN			ETCHALUS
(Enbata)			(Enbata)
			ETCHANDY
			(S.F.I.O.)

Itsas aldean		Barne aldean	
1973ko BOZKETAK			
Boz			
emaileak	95.250		49.395
Agertu di- renak	77.237 (%81,08)		40.475
Hautu bat egin	75.797 (%79,57)	77.365	39.882 37.066
	1. itzulia	2. itzulia	1. itzulia 2. itzulia
MARIE	25.056	35.352	INCHAUSPE 19.580 25.816
(U.D.R.)	(%31,73)	(%45,69)	(U.D.R.) (%49) (%69,65)
BOROTRA	15.472	12.976	LABEGUERIE 12.419
(Erdikoa)	(%20,41)	(%16,77)	(Erdikoa) (%31,14)
DESTRADÉ	14.706	29.037	LOUGAROT 5.990 11.250
(P.S.)			(P.S.) (%15) (%30,35)
LABROUSSE	11.575		BLASQUIZ 1.893
(P.C.F.)	(%15,27)		(P.C.F.) (%4,74)
D'ELISSAGARAY	7.122		
(Giscard-tiar)	(%9,39)		
BESTERIK	1.866		
(3 eskuindiar)	(%2,46)		

Itsas aldean		Barne aldean	
1978ko BOZKETAK			
Boz			
emaileak	112.242		53.761
Agertu direnak	94.206 (%83,93)		44.671
Hautu bat egin	92.452 (%82,37)		43.487
	1. itzulia	2. itzulia	1. itzulia 2. itzulia
MARIE (R.P.R.)	47.623 (%51)	Lehen itzulitik	INCHAUSPE (R.P.R.) 21.593 (%48,33) 30.001 (%68,98)
DESTRADE (P.S.)	23.540 (%25,46)	bukatu da dena	LETAMENDIA (Erdikoa) 9.220 (%20,63)
LAGARDE (P.C.F.)	14.945 (%16,16)		MAITIA (P.S.) 7.896 (%17,67) 13.486 (%31,02)
GOYHENETCHE (E.H.A.S.)	2.794 (%3,02)		LABADOT (P.C.F.) 3.170 (%7,09)
COURET ¹ (L.O.)	1.050 (%1,13)		LARÇABAL (E.H.A.S.) 2.130 (%4,79)
CASTAIGNOS (L.C.R.)	411 (%0,44)		MALATY ¹ (L.O.) 662 (%1,48)
OCAÑA ² (Maozalca)	407 (%0,44)		
PREVOST ³ (Front Nat.)	1.682 (%1,81)		

Historia pixka bat

Ikusten dugun bezala, eskuina —frantsez eskuina, alabaina— zinez garaile ateratzen zaigu. Ez dugu atzokoa ohitura hori. Historian barna itzuli larbur bat egin dezagun, arren.

Euskaldunek lehenbiziko aldiz Frantziako bozketan parte hartu zuten Iraultza haundiaren garaian (1789). Gure deputatuak Frantziako politikatik at egon nahi izan zuten. Baxenabarrekoak ez ziren biltzarrean sartu ere, erresuma berezi batekoak baitziren.

Lapurdi eta Zuberokoak Foruen zaintzera ahalegindu ziren. Debaldetan. Gero Euskal Herriko deputatuak bat egin zuten, euskal departamendu bat erdietsi eta lotu beharrez. Alferretan hori ere. Halaber Joseph *Garat*, Uztariztar deputatuak Napoleoni proposatutako Euskal Herri batua.

Gero, nahi ala ez, Frantziako politikari lotua zen Ipar Eus-

kal Herria. XIX. mendeko hauteskundeetan, eskuin aldera jo zuten euskaldunek. Salbuespen bat izan zen Agosti *Xaho* zuberotarra, ezkertiar abertzalea. Kontseilari jeneral izan zen eta deputatugoa gutiz huts egin zuen bi aldiz (1848an eta 1849an). Haren lagun Michel *Renaud*, Donibane-Garazikoak, suerte gehiagoko ukan zuen, 1849an deputatugora iritsiz: Errepublikaren aldekoa zen hori ere.

Euskal Herrian arrakasta handia ukan zuen Napoleon bigarrenak, Antoine D'Abbadie d'Arrast-en adiskideak. Biarritzeko ondartzaren omena egin zuen.

Aldiz Hirugarren Errepublica oso gaizki hartu zuten apezek eta jauntxoek, are gehiago Estatua Elizatik berezi zelaririk. Bozketan, gogorak izan ziren xuri-gorrien eztabaidak, herri tipipietaraino. Xuriek ziren jaun erretorari jarraituzten zirenak, eta hau erregetiarra zen.

Bi gerla haundien artean oraino, euskaldun apezek artean bazen erregetiar frango. Azken guduan, Petain marexalaren alderdia hartu zuten. Aitzinetik *Ybarnegaray*, eskuin muturrekoa, 26 urtez deputatu izaten lagundu zuten (1914-1940). Gero Vichy-ko ministro izan zen.

Bokate eta Zuberoan Maule eta Basaburua dira berriki arte ezker agertu diren toki bakarrak. Bien artean, erdipurdi, Baionak bigarren inperioaren aurka bozkatu zuen Xaho-rekin. Bi gerlen artean, *Garat* radikala Baionako auzapez eta deputatu izan zen. Azken gudaz geroztik beste bi radikal egon dira Baionako auzapez: *Delay* eta *Grenet* medikuak. Hau oraino hala da. Garai batez deputatu ere izan da. Baina ezkertiarra dela, neholaz ere ez daiteke erran.

Itsas aldean, deputatu izatera iritsi zen beste *Garat* bat, sozialista (1952-1956).

Euskal Herri barnean, gerla ondoko herri-gizon ahaltsuena izan dugu *Errecart*. Erdikoa zen, kristau-demokrata, eskuindar liberala eta hein bat soziala. Arteko laborarien interesak ongi zaindu zituen. Egia erran, deputatugoa baino lan hobea egin zuen Donapaleuko «Lur-Berri» kooperatiben zuzendaritzan. Adin bateko Euskaldunek, eta bereziki apezek eta jauntxoek, begi gaiztoz ikusten zuten, *Ybarnegaray*-en bidea hautsi zuelakotz eta beste bat aurrerazaleagoa zabaldu.

De Gaulle berriz gobernuan sartu zenetik, haren kidekoei boza eman diete euskaldun gehienek, eta lehenik 1958an, *Camino* eta *Elissabide* jaun zaharrei barnean, *Thomazo* koronelari itsas

aldean. Baina 1962an hutsune bat izan zen, horiek U.N.R. alderdia utzi baitzuten, De Gaulle-k Algerian zeraman politika liberala gaitzetsiz. Horretaz baliatu ziren *Grenet* (tsas aldean) eta Michel *Labeguerie* (barnean). Hau oraino Enbata kazetaren multzoan zegoen (mugimendurik ez zen oraino), baina alderdirik gabe agertu zen. Ondotik Lecanuet-en alderdian sartu zen.

Nola esplika daiteke?

Eskuinerako joera hori, nola esplika daiteke? Non ditu erroak eta sustraiak? Errepublikak gorriaren edo gorriskaren garaian, erdirakoikeria duda gabe arbuizatzen zuten gure aitzinekoek. Gorria edo gorriska zelakotz soilki? Gaur, Estatua eskuinaren eskuetan dagoelarik, eta behinere baino erdirakoiagoa, gobernuari loturik dago Herriaren gehiengo. Hure eskuindarra delakotz ote?

Dudarik gabe, eskuindarra dugu Herriaren zati zabalena. Baina jakin behar liteke zergatik den hala. Horretara entseiatu nintzen *Zabal* agerkariaren lehenbiziko zenbakian. Baina gaur ez dit gogo oso betetzen orduan egin nuen lan hark.

Nekazari asko badagoela erratea ere ez da aski argigarri. Frantziako Estatuan badaude aspalditik ezkerzale diren laborari-eskualdeak, guztiz Occitanian, bai eta eskubizale diren industri lekuak, bereziki Alsazian.

Bestalde, erdirakoitasuna onartu ote du Euskaldun askok? Badirudi halako aldakuntza sakon bat gertatu zaigula belaunaldi batean, 39-45eko gerlaren inguruko gazterian: uste dut jende horrek, jakinean edo jakin gabean, euskaldungoari uko egin diola, Gaullismoaren frantseskeria bereturik. Eta horrek alderdien azterketara garamatza.

A) Estatu mailako indarrak

1. Eskuinekoak

a) R.P.R.: *Rassemblement Pour la République*

Hau da gaullisten alderdia. Aitzinetik izan zen R.P.F. delakoa (*Rassemblement du Peuple Français*) De Gaulle-k berak eraikia (1947-1951). Gaurko alderdia 58an eratu zuten haren lagun batzuk, U.N.R. siglarekin (*Union pour la Nouvelle République*). 1968an U.D.R. bilakatu zen (*Union pour la Défense de la République*). Izena berriz aldatu zuen 1977an, gaurkoa hartuz.

Chirac, Pariseko auzapeza du burua. Pentsakeraz eta boz-emailez, eskuin herrikoi bat da, frantses herrikoia bistan dena, ohiko jakobinismoaren ildotik: Estatu pizkor baten aldekoa, nazionalista, erdirakoia.

Europaren batasun tinko bat arbuiatzen du. Espainia, horretarik at utzi nahi du. Barneko politikan, demagogia ugari. Diruaren balioaz, Barre eta Giscard-ek baino axola gutiago du. Ekonomiaren bultzatzea proposatzen du, politika desarroilista baten haritik, lan-gabeziaren kentzeko, baldin horretarako inflazioa azkartu behar balitz ere.

Gobernutik at, De Gaulle-ren partzuergoa goraiatzen du. Gobernuan, eskuin guztiek bezala egiten du, erran nahi baita sail horretan deus, pitsik, ezer ez.

Eskualdekatzearen etsai gogorrena dugu. Euskal Herrian ere, demagogia merke. Baina funtsezko aldaketarik ez du proposatzen. Euskal departamenduaz, ahatea bezain mutu dago. Euskaraz irakatsi behar dela, bai, eta horretarako irakasle zenbait erdietsi dizkigu Inchauspek; eskolaz eskola badabiltza, ordu bat hemen, beste bat han eginez...

Baina Inchauspek Zubero eta Baxenabarreko auzapezen biltzarrean trabatu du Haritschelar batek bilinguismoari buruz proposatu ageria, *Ikas* batasunarena hain zuzen.

Militante guti du Euskal Herrian, Frantzia asko baduelarik. Baina sinpatizante anitz baduela iduri luke. Gainera, dirua nasaiki baitu alderdiak eta banketxe baten jabe eta buru baita Inchauspe, bozketan laguntzaileak ugari biltzen ditu, afixa eta kartelen emateko, batzarretan poliziaren egiteko eta abar...

Inchauspe dugu Euskal Herri barneko erregea. Hari guztiak eskuetan ditu. Adimnistratziotik edozein fagore eta eskubide lortzeko, harengandik pasatu behar da. Herriaren gain podere haundia badu. Gobernuan, ez hainbeste. Poderea, beti gain behera dabil, ura bezala. Zernahi dela, gobernuaren plan guztiak laguntzen ditu, bereziki Euskal Herriaz eremu berde bat egin beharrez turistentzat. Hazparnen bi lantegi sartzen lagundu baditu bere xokoan —Garazin— ez du tokirik lantegientzat, bera bankaria eta artile-saleroslea izanagatik.

Estatu mailan, arteko jauneria berri baten alderdia dugu R.P.R.: azken gerla haundiaren ondotik, neo-kapitalismoaren hazkundearekin pizkortu den burgeseria nazional batena. Baina mendebalean merkatua batzen ari den bezala, urtuz doa burgeseriaren zati hori: bere gaintasuna galtzen du gero eta gehiago.

Ikus daiteke Europari eta Amerikari begira Frantziako eskuinak daraman politikan: Giscard-en xedeak nagusitzen ari dira, Chirac-ek nahi ala ez. Muzin eginagatik, jarraitzea baizik ez dezake egin, zangoak herrestan.

b) C.D.S.: *Centre des Démocrates Sociaux*

Hauck ditugu «erdikoak», kristau-demokratak, *Lecanuet*-en alderdikoak. 39-45eko gerla ondoan sortu zen M.R.P. delakoa (Mouvement Républicain Populaire), iduriz aurrerazaleak. Eskuin zaharra gerla denboran Alemanekin zikindu baitzen, Petain marxalaren haritik, oso apal egon zen gero, eta horren bozemaileak hartu zituen «zentroak». Baina horien politika ere hartu zuen, bereziki Viet-Nam-eko auzian. Hor asko galdu zuen. Azkenekoz, UNR-ak bozemaile anitz hartu zion.

Bostgarren Errepublikan, *Lecanuet*-ek eraiki zuen «Centre Démocrate» delakoa. Honen azkenengo bilakaera, bere burua «Centre des Démocrates Sociaux» bataiatzea izan da.

Euskal Herrian, Errecart zuen burua. Gaur Labéguerie du.

Luzaz De Gaulle-ren aurka borrokaturik, 1973an berriz gobernuan sartu zaizkigu Erdikoak. Hor asko galdu dute. Euskal Herrian eta beste nazionalitate kristau eta gehienbat katolikoetan (Breitainian, Alsazian) ezker epel baten lekua hartzen zuten, oposizioa monopolizatuz. Baina gobernuan sartu direnetik, eta P.S. pizkortuz zihoala, horri lotu zaio kristau asko.

Oso Europazalea da Erdikoen alderdia, eskualdezalea ere bai. Sozial aldetik xede onak oihuztatzen ditu, sozial-demokratatzat jotzen duela bere burua. Euskal Herriari begira, halaber, ele pollitak. Erraten du, baina ez egiten. Ez dirudi, faltsukeriaz dela, ezen euskaltzaleak baditu buruetan eta arrakasta ederra badu euskaltzale goxoen artean, holakoak baitira ipar aldean beintzat, adin bateko jendetan, gehienak.

Alde batetik, kemena falta zaie. Bestetik, gobernuan daude: han ez dute gehiengorik, eta nahi dutena ezin egin. Euskal Herrian berriz, aitzindari ezagun eta boteretsurik ez dute, Labéguerie bera baizik. Baina hau pixka bat higatua, bai osasunez, bai gisa guztiez, senatore sartu da, deputatugorako bidea hutsik utziz Euskal Herri barnean. Hor bi «gazte» ari izan dira azken bozketan: *Letamendia*, Bordeleko Unibertsitatean irakasle dena, eta Mixel *Eppherre*, nagusi xumea, Errecart zenaren suhia, Zuberoko Euskaltzain zenaren anaia. Enbataren sortzailetarik izana da, eta Donapaleuko Ikastolaren buruetarik.

Ez gara harrituko beraz euskal departamenduaren alde agertzen bada. Aldiz Labégueria, denbora batez xede horren aurka ze goen. Gero bere ikuspegia nabartu zuen. Orain ez du aipatzen. Dirua P.N.V.-tik ukan dute.

Itsas aldean berriz, ez dira oraingoan agertu ere zentristak. Lehen alditik R.P.R.-ari boza eman diote, *Marie* abian nagusia-raziz. Beren haritik bururaino joan dira beraz.

Euskal Herri barnean, aitzinetik hainbeste borrokatua zuten R.P.R. alderdiari boza eman diote, bat ere faltatu gabe. Hots, bere ezkerre galdurik, eskuin erori da zentroa.

c) *P.R.: Parti Républicain*

Eskuin liberal zaharraren kimu berri bat dugu alderdi hau, Giscard-ek eraikia, Antoine Pinay, 1954ean lehen ministro izanaren «Centre National des Indépendents» delakotik sortua.

Burgesia haundiaren eta burgesia liberalaren alderdia dugu hau, Estatu mailan: jende ontsa ikasia, eskolatua, nahiko argia, mihiz behintzat erreformazalea. Baina oso meheak dira egiten dituen aldakuntzak: dirua eta boterea ez ditu hunkitzen.

Ekonomia mailan, bai, liberala da: liberalismo zaharrera itzultzen ari zaigu Estatua, Giscard eta Barre jaunei esker. Europazaleak ditugu segurki, beren gisara, Europa kapitalista baten aldekoak, eta horri buruz ari dira, Schmidt-ekin esku-esku. Espainiako Estatua horretan sartzea nahi dute: hori ere zerbait da eta Ipar Euskal Herriarentzat onik ere dakarke.

Eskualdekatzearen aldekoak ditugu hitzez, baina Frantzia erdirakoia bere hartan uzten dute. R.P.R., eskuineko jakobinoen ondokoa baldin bada, girondakoena da Giscard-en alderdia, Erdi-koekin batera: erdipurdi. Badakigu hortik zer atera daitekeen.

Militante guti du Estatu mailan, are gutiago Euskal Herrian. Hemen sinpatizanteak ere guti ditu: mediku, farmazeutiko, albaiteko (marexal, beterinario), industrilari argitu zenbait...

Euskal Herri barnean, ez da bozketan oraindik agertu: praktikan, Zentroarekin bat egiten du hemen, hau Giscard-en aldekoa denez geroz. Estatu mailan ere, elkarrekin uztarturik daude, U.D.F. delakoaren barnean (Union pour la Démocratie Française).

Itsas-aldean, Elissagaray eta Luberriaga ditu buruak, biak goi-mailako kuadroak. Luberriaga, Azkaingo auzapeza dugu. Elissagaray, deputatuen bozketan ari izan zen 1973an. Oraikoan, R.P.R.-ari botua eman diote. Euskaltzaleak dira jaun horiek, eus-

kal departamenduaren aldekoak. Baina gobernuarekin bat baitaude, nolaz ez dute lortzen?

Elissagaray, euskal kulturaren «Charte» bat bultzatu nahiz ari zaigu. Ikusiko hortik zer aterako den. Ni beldur gauza guti, nahiz ez diodan entseiu bati aurrez aldetik ezetza errango.

2. Ezkerrekoak

a) P.S.: Parti Socialiste

Mitterrand-en alderdia, honen itzalean bizkortua. Lehengo S.F.I.O.-ak eta ezker berriko talde batzuk osatua.

Alderdi zaharrean, indar gehiena irakasleek zuten. Oraindik badute, baina langile gazte asko sartu da, guztiz lepo zuriatarik (esku langileatarik gutiago), bereziki kristauen arteko jendea.

Talde eta militante iraultzaileak baditu, baina erreformazalea da gehiengoa, nahiz maila desberdinetan, ohiko ezker epeletik, C.F.D.T.-aren erreforma iraultzaileraino. Autogestioa nahiko aipatzen da, baina hau ere maila desberdinetan ikusten da, jende eta multzo batetik bestera.

Europazaleak ditugu frantses sozialistak, Giscard-tiarrak bezalaxe, CERES taldea hargatik gutiago. Espainiaren sartzeari onartzen dute, baldintza batzuk betez geroz.

Eskualdekatzearen aldekoak ditugu, halaber, baina hemen ere maila desberdinetan. Ezkerreko jakobinismo batek dirau batzutan. Besteak berriz, oso autokudeatzaileak ditugu horretan ere.

Euskal Herrian, militante baino partzuer (adhérents) eta sinpatizante gehiago dauka P.S. alderdiak: gehiengoa Zuberoko Basaburuan eta Maulen, bai eta Itsas-aldeko toki batzutan, hala nola Hendaian. Oro har, aitzinamendu ederra egin du azken urte hauetan, erdiari hartuz. Nahiko abertzalek ere botua ematen dio... eraginkor izan nahian.

P.S.-ri ez zaio segur falta borondate onik, baina nahikunde gogor bat ikusi nahiago genioke, euskal arazoari dagokiola. Euskaltzale finak baditu, abertzale zenbait ere, baina jakobinoak ugariago, eta bien artean oportunistak frango, alderdi haundi guztietan gertatzen ohi den bezala, guztiz boterea hurbil dutelarik.

Euskal departamenduari buruz, ez du erabakirik hartzen P.S.-ak. Baizik eta Prefet bat gehiago izendatzea litekeela eta prefeten kentzea duela nahi... Berak halako eskualde ttiki mitiko bat proposatzen du, frantses konstituzioan ez daitekeena. Berriki Destrade jaunak erran du bi kontseilu general behar litezkeela,

bat Biarnokoa, bestea Euskal Herrikoa, baina Prefet bakar batekin, Pauen legokeena duda gabe! Funtsean, horrela eratua da P.S.-a bera: bi herrialde baditu, Biarnokoa eta Euskal Herrikoa, baina Federazio bakar batean: Pirene-Atlantikoa, alabaina.

Euskal irakaskintza berriz, nahi dutenei proposatu behar zaiela, baina nehor ez dela bortxatu behar... P.S.O.E.-ren antzeko posturak. Baina Frantsesa edo Gaztelera, nahi ala ez ikasi behar Euskaldunek! Hots, ezkerreko Girondinoak ditugu P.S.-koak: erdipurdi hauek ere. Badakigu zer...

b) *P.C.F.: Parti Communiste Français*

Marchais-en alderdia, esku langileen artean gehienik sartua dena. C.G.T. sindikatua, Frantziako gotorrena, eskuetan du.

Puntu askotan, R.P.R.-arekin pareka daiteke, nahiz beste gizarite-mota bat bilatzen duen. Ezkerreko jakobinismoaren harresia dugu P.C.F.: oso Estatuzalea, erdirakoia, nazionalista. Estatu gotor eta boteretsu bat nahi du, Frantzia azkar eta nukleartzale baten biltzaile, autarkia batean: «l'Union du Peuple de France», Frantziako Herriaren batasuna da horren helburu nagusia. Hortaz erran daiteke, ezkerreko gaullismaren alderdia dela P.C.F.

Ekonomia mailan, nazionalizatze mordo bat eskatzen du, P.S.-ak baino askoz ere gehiago, eta despere hortarik zen etorri 1977ko Irailean hasi bereizkuntza: hori zen izan, behintzat, aitzakia. Bistan da horrelako politika bat ez daitekeela obra eta kudea, Europa «liberal» bati loturik legokeen Frantzia batetan. Hortik, bereziki, Europaren aurkako jokabidea, nahiz beste arrazoirik ere badukeen. Ber denboran, politika desarroilista baten aldekoa dugu P.C.F., R.P.R. bezala, nahiz beste bide batzuetarik: bizipide nazionalizatuak eta ekonomia zinez planifikatu bat nahi lituzke lehenak, kapitalismo klasiko eta liberal bat bigarrenak.

Beraz, Europaren batasunari aiherrak zaio P.C.F.: Europa kapitalistari, bistan dena, baina edozein Europari, ni beldur. Estatu eta Frantzia, dira horren hitz nagusiak, Gaullistenak bezala.

Espainia Europako merkatutik bazter atxeki nahi du P.C.F.-ak ere.

Eskualdekatze demokratiko baten aldekoa dugu, eskualde haundien mailan behintzat. Baina Estatu boteretsu baten aurrean, ez ote liteke zinez ahula, mamirik gabekoa, eskualdeen autonomia? Hitz hau ez darabil P.C.F.-ak, independentziarekin nahasten baitu, Frantses gehixenek bezala.

Euskal Herriari dagokionez, ele onak ugari darabiltza PCF-ak: Euskara irakatsi behar dela, beste hizkuntza bereziak bezala. «Langues Régionales» erranaldiaz izendatzen ditu. Baina horrek ez du mamirik, ez da zientifikoa, hizkuntzalari batentzat ez du ezer erran nahi: hizkuntza oro nazio batena, edo nazionalitate batena bederen, hots nazionala da, ez erregionala. Gainera, atarabide konkreturik ez du proposatzen P.C.F.-ak. Egia erran, ez diot euskaltzalerik ezakutzen, ez eta Maozaleei, ez eta RPR-ari, beste alderdi guztiek badituztelarik.

Euskal departamendurik ez zuen nahi, baina badirudi xede hori orain onar lezakeela.

Hots, ele onak hemen ere, baina zer gehiago?

Janari dagokionez, zerbait gehiago ikusten zaio. Nazionalizatuak litezke Dassault eta Turbomeca, hegazkin egingiak. Horretan P.S.-a P.C.F.-arekin bat dago. Euskal Herriarentzat, zer alda lezake? Interesgarriago, lan-gabeziaren aurka PCF-ak erakusten duen kemena, bereziki lantegi batzuk hersten direlarik, Maulen eta Itsas-aldean. Frantses alderdian, mugitzen den bakarra da PCF-a.

Bokalen ederki sartua da aspalditik. Maulen ere poliki.

Azken bozketan, aitzinamendu ederra egin du. Alta bada, haren gizonak nehor guti zituen eragutzen, guztiz barnean. Bilzarretan arras jende guti du bildu. Baina kartelen kanpaina ederki eraman du, «à l'Américaine». Eta guztiz, telebistan agerraldi asko egin du Marchais jaunak. Oraingo bozketak, telebistan dira egiten. Hor abantail izigarria dute frantses alderdi haundiek. Aldiz, bazterturik gelditzen dira talde tikiak, eta oroz gainetik abertzaleak.

c) *P.S.U.: Parti Socialiste Unifié*

P.S.U.-ak asko galdu du P.S.-aren eraberritzearekin: lehenik joan zitzaion Rocard... autogestioaren xedea ere hartu zioten. Baionan talde tiki bat bada, nahiko euskaltzalea. Herriko bozetan, 1977an, ezkerreko listan sartu da, EHASEkoekin.

d) Ezkerreko Radikalik ez da hainbat Euskal Herrian. Bozetan agertzeko ere ez dira.

3. Ezker muturrekoak

a) *L.C.R.: Ligue Communiste Révolutionnaire: Trotskyzaleak*
(Krivine-ren alderdia)

Militante-multzo tiki bat bada Baionan (hamar bat orain).

Seigarrenarekin ari ziren, eta eragipen ederra bazuten gazterian, guztiz Baxenabarren. Baina ezker abertzaleari utzi behar izan diote. Militante onak izanagatik, frantses ezkeraren eta euskal abertzaleen artean tinkaturik dira. Nahiko euskaltzaleak, auto-determinazioaren aldekoak dira, kulturako barante herriko bat proposatzen dute, bai eta lan-gabeziaren aurkako ekintza batua.

b) *P.C.M.L.F.: Parti Communiste Marxiste-Léniniste de France. Maozaleak*

Talde ttiki bat bada Baionan. Lantegietako borrokak laguntzen dituzte: Biarritz, Scoess, Hospitalea, Gaboriau... Halaber ZUPEan, tokiko zeigen aurka... Horrela, sindikalari batzuk badituzte. Bestalde «Amitiés franco-chinoises» direlakoetaz arta hartzen dute, filmak pasatuz eta abar.

Euskal arazoa ez dute hainbat ezagutzen.

B) Abertzaleak

1. Enbata

Aitzinetik abertzale batzuk izan baziren ere, hala nola Marc Legasse, *Enbata*rekin hasi zen, Iparraldean, abertzale mugimendua (1960-1963).

1967an deputatuaren bozketan agertu zen *Enbata*. Horretaz bi ohar egin daitezke.

Lehena, Euskal Herriaren etorkizuna biziki aipatu zen, aspaldiko orde, alderdi guztien bilkuretan.

Bigarrena, aitzinetik baino jende gehiago bildu zela, askoz ere, bilkuretan, eta guztiz Enbataren batzarretan.

Ordu arte, Euskaldun gehienek ez zuten abertzalegoaz gaizkia eta gezurra baizik erantzun, etsaiek hedaturik. Hor lehenbiziko aldiz, xuxenka ezagutu zituzten abertzaleen asmoak eta xedeak. 100 bozetarik 5eko hori bildu zuen, guti eskas, *Enbata*k (5.000 boz)? Nik behintzat, ez nuen hainbeste igurikatzen. Baina militante gazteak horretaz lotsatu ziren, eta batzuk *Enbata* utzi zuten.

1968an, jende gutiago etorri zen batzuen eta besteen bilkuretara, gorrien beldurra nagusitu zen. Abertzaleentzat ez zen izan toki haundirik, frantses bi alderdi bizkorrenen borroka horretan. Telebistak egin zuen dena.

Geroztik ere, aiaz jende guti bilkuretan. Galderarik ez da hainbat tokiko harat-hunatetaz. Jendeak, Errepublikako presi-

dentearen alde edo aurka ematen du, gehienbat. Telebistak ere horretara lehiatzen du. Gehienetik, lau eskualde dira hor agertzen: eskuinetik U.D.F. eta R.P.R., ezkerretik P.S. eta P.C.F.

Horietan mugatzen da, praktikoki, aukera guztia. Jendeak arras ongi asmatzen du ez dela Pariseko Presidente-aulkira, ez eta gobernura iritsiko abertzale-mugimendua. Beraz honi bozaren emateak ez du zentzurik, non ez den zinezko abertzaleentzat. Hona zergatik abertzaleak, Iparraldean, bozetara joatea oso arriskutsu erizten diodan.

2. EHAS: Euskal Herriko Alderdi Sozialista

Bizkitartean, EHAS agertu zaigu. 1974ean sortu zen, HAS izenarekin. Enbata mugimendua berriki debekatua zuen frantses gobernuak. Alderdi berria eraiki zuten Enbatako batzuk (Burgosko auziaren garaian sartu zirenek) eta Enbatan ez zeuden beste batzuk.

1975eko azaroan, Hegoaldeko E.A.S-ekin uztarturik, EHAS bilakatu zen. Abertzale sozialista dugu alderdi hau: Euskal Herri askatu, batu, euskaldun eta sozialista baten aldekoa, beraz. Herrialdeka eratua da, bereziki Baiona, Hazparne ta Zuberoan indarra duelarik. Berrikiago, Garazin, Senperen, Hendaian eta abar... erroak egiten hasi da. Larogei militante ditu gutienez, laborari eta langile gazteak gehienak.

Ikasleen artean ez du holako arrakastarik orainokoa.

Bozetara joan da bere izena bazter utzirik, ezker abertzale guztia berekin aurrera atera nahiz. Horretan huts egin du. Ez dira bozaren ematera joan abertzale gazte batzuk, bereziki Baigorrikoak eta Itsas-aldekoak. Frantziako sisteman sartzea zitzaien. Bestalde hirietako burges ttipi abertzaleen bozak galdu ditu. Hala ere, 5.000 bildu ditu, Enbatak 1967an bezala. Baina arauka, gehixago ukan du barnean eta puska bat gutiago itsas-aldean (1967an baino bozemaile baita orain). Gibelatze hori, goian aipatutako bi arrazoiek esplikatzen dute.

Gainera, sozialista gogor agertzen zaigu EHAS, gizarteko eztabaidetan ere horrela jokatzuz: arteko jende-mota bat ez dezake bil Enbatak egiten zuen bezala. Azkenekorik, Iparraldearen autonomia proposatu du bere kanpainian: Enbatak ez zuen holakorik aipatu, euskal departamenduan mugatzen baitzen erakunde mailako eskaria.

Hilabetekari bat agertzen du EHASek: «Euskaldunak», gehiena frantsesez idatzia. Zenbaitzuk erran nahi lukete hori delu

EHASen lan bakarra: baina ez da egia. Langileen eta laborarien borroketan barnetik parte hartzen du, horien artean baititu militanteak, hala nola: Mauleko eta Baionako lantegietan; Laborari-taldeetan (Zubero, Amikuze, Garazi, Hazparne, Senperen...).

Beraz, lantegi bat hertsu nahi dutelarik, edo lurra laborari ez den bati saldu, han daude EHASeko batzuk, partzuer bezala, eta ez nonbaitetik ele onaren hedatzera etorritako ikasle eta irakasle bezala. Hola baita!

Turismoaren aurkako kanpainetan, berriz, beste abertzale guztiek bezainbat egiten dute —dugu— EHASekoek: hori ere begien bistan dago Euskal Herriko orma-paretetan, ikustea onartzen den ber.

II. — BOZETAN ARI IZAN EZ DIRENAK

A) Estatu mailakoak

1. Feministak

Itsas-aldean, bereziki Baionako eskualdean, talde bat badago, «Groupe de Lutte des Femmes» (G.L.F.) izenekoak. Ideologia orokor bat aipatu behar baldin bada, Trotskizaleen haritik dabilzala erran dezaket. Zoritzarrez, besterik ez dakit oraindik. Gehiago jakinen dut agian, ondoko aldi bateko.

2. Ekologistak

Ekologistak ere badaude, guztiz «Jeunes et Nature» taldekoak, Kanboko Le Baillif gaztea dutelarik aitzindari. Baina hauek ere guti ditut czagutzen. Iholdiko lakuaren auzian agertu ziren, laborari gazte eta abertzaleekin batera. Halaber Getariako zubia-
ren auzian. Geroztik ez dakit. A, bai, Herriko azken bozetan, Biarritzen lista bat aurkeztu zuten. Eskuinekoa, ezkerrekoa, denetarikoa noski.

B) Abertzaleak

1. Feministak

Hemen ere talde bat badago Baionan. Emazte abertzaleak dira, duda gabe. *Zabal* agerkarian agertu ziren, behin segurik.

Publikoan ez dira hainbat azaltzen, agiririk ez dute helatzen ez oihuztatzen. Lan konkretu batzuk egiten dituzte, hala nola zaku tikiak, saltzeko. Filma edo pelikula baten egiten ari dira ikas-toletaz.

2. Autogestiozaleak

a) *Ezker Berri*

Ezker Berri, *Mende-Berri* kultur mugimenduko zenbaiten politika taldea da. 1977an alderdi berri bat eraiki nahiz bazabil-tzan, baina urte horretako larrazkenean zatiketa bat ukan zuten, militante gehienak galtzen zituztela; alderdiek arrakasta guti gaz-teen artean! Eta gazteak dira, gutiz gehienak, *Mende-Berriren* ingurukoak.

Gehituagoa da Ezker Berrin gelditu den taldea. 1978an ere alderdi baten eraikitzeke xedearekin ibili dira; horren ardatzak ekologia, autogestioa eta filosofo berrien pentsakera. Beren xe-deak *Gernika* aldizkarian azaltzen dituzte.

Udazken honetan izan dira «Enbata girokoak» deituko ditu-danen bilkurak. Horieta parte hartu dute Ezker Berriko batzuk. Egoki ere iduri zait, ideologia eta ikuspegi beretsua dutelarik. Baina ez dakit, halere, beren alderdi bereziaren antolatzeke xede-tan dauden beti, ala ez, Ezker Berrikoak.

b) *Enbata girokoak*

Hola bataiatzen ditut udazkenean Abertzale-Batzarra (Assises Abertzale) direlakoak egin dituztenak. Ezen Enbata kazetak azal-tzen duen ikuspegi nagusiaren haritik doa horien jokabidea.

Abertzaleak dira, duda gabe. Autogestiozaleak halaber. Aber-tzale guztiak bildu nahi lituzkete ekintza, sail eta xede premia-tsu zenbaiten inguruan:

- euskal departamendu-eskualde bat
- bilinguismoa
- kooperatibismoa
- banku publiko edo erdi publikoen kontseiluetan sar-tzea (Laborantzako kutxetan, aurrezki kutxetan...) to-kiko dirua tokian inbertitzeko.

Xede onak, horiek guztiak: ez da abertzale bihirik aurka egon daitekeenik. Baina nola erdiets, hori da gakoa. Dena dela, ehun eta zenbaitek lan horretan parte hartu du eta oraino ari da,

Ramuntxo *Camblong* eta Patxi *Noblia* dituztelarik aitzindari. Hortik zerbait seriorik atera daiteke.

3. Radikal gogorrak

Hola bataiatzen ditut beste guztien bidetarik kanpo dabiltzanak, sistema osoki ukatuz xedetan eta jokaeran.

a) *Talde harmatuak*

— *Iparretarrak* izenekoa, 1973ko Abenduan agertu zen, nagusi oker bat Baigorriin zafratuz. Geroztik turismoaren aurka ekin du gehienik, horri emanak diren barne batzuk errez, bereziki Sokoan, Biarritzen eta Bordelen (MIACA).

— *E.Z.* taldea («Euskal Zuzentasuna») 1977an agertu da bide beretik. Baina Frantziako Estatuaren erakunde batzuei ere lotu zaie (Donibane-Lohitzuneko poliza-etxea eta zerga-etxea errez). Bordeleko *Miacan* parte hartu zuen Iparretarrekin.

— *Hordago* taldeak bonba ttiki batzuk ezarri ditu 1978ko uda hastean turismoko bulego eta ofizina batzutan (Syndicats d'Initiative).

Hiruiek beren ekintzen erran-nahia berehala ohiuztatzen dute, dela paperak hedatuz, dela kazetei zuzenduz. Bestalde Iparretarrak taldeak agerkari bat, *Ildo*, bi hizkuntzetan idatzia, postaz helarazten dio jende anitzi. Batzuen eta besteen ikuspegiak, ezker abertzale guztiarenak dira. Jokabideak dituzte desberdinak.

b) *Xan-en aldeko mugimendua*

Mugimendu informala dugu hau, talde eta pertsona desberdinez osatua. Badirudi *Jazar* dela horretan sartu den multzorik gotorrena eta finkatuena. Baina gazte asko inguruan dabil, alderdi batean egon nahi ez dena. Ikasle eta irakasle, langile eta laborari, denetarik biltzen da hor, Xan-en izenak eta helburuak elkarturik.

Biltzarrak nonnahi antolatu dira kasu horretaz, komiteak eratu dira: nahi ala ez, halako masa-mugimendu bat badago, abertzale sozialista, beste talde guztien ikuspegi, xede, helburu eta jomugekin. Hortik ere zerbait seriosik atera daiteke.

Bukatzeko

Enbata girokoak, Ezker Berri, Feministak, EHAS, Xan-en aldeko taldeak, besterik izendatu gabe, denen beharra badu Eus-

kal Herriak. Guztiek badugu zer egin, zoritxarrez bizkor baitira Ipar Euskadin frantsez alderdi erdirakoiak, aldiz iluna Euskaldunen egoera. Azkar eta zuhur ekin beharra dago.

Batasun oso bat, mugimendu orokor bat, ametsa da noski. Baina ez dezagun behinere ahantz beste hau: etsaia aurrean edo atzean dugula, ez gutartean. Hari gure ukaldiak oro!

¹ *Lutte Ouvrière* (L.O.) dugu Trotsky-zaleen beste alderdi bat. Euskal Herrian erakunderik ez du. Baina Estatu guztian agertu da boz hauetan. Horren aitzindari ezagutuena, Arlette Laguiller emakume gaztea. Presidentziarako hauteskundeetan ari izana da 1974ean. Geroztik ere telebistan agertu da noiztenka. Hortik L.O. erakundearen arrakasta guztia, bereziki Euskal Herrian.

² Maribel *Ocaña* neska gaztea, bere ideiegatik lana galdurik, boz hauetan lehen mailan agertu zaigun emakume (emazteki) bakarra. Itsas aldean, hargatik, bi emakume ari izan dira bigarren bezala: Nicole Péry, Destrade P.S.-koarekin eta andere Massigoge E.H.A.S.-ekin.

³ Eskuin muturra, Jean Marie Le Pen-en alderdia. Erakunde ageririk ez du Euskal Herrian.

J. L. D.-I.

**LAS FUERZAS POLITICAS EN EUSKADI NORTE
LES FORCES POLITIQUES EN PAYS BASQUE****I. — LAS FUERZAS QUE SE PRESENTAN A LAS ELECCIONES****A) Los partidos hexagonales****1) De derecha:**

a) El R.P.R. (Rassemblement Pour la République): el partido de CHIRAC, alcalde de París, es una derecha popular, dirigida por una nueva burguesía «nacional». De tradición jacobina, quiere un Estado fuerte y centralizado, cerrado sobre sí mismo y que lleve una política relativamente neutralista. Se opone a la integración europea y a la entrada de España en el mercado común. En el interior, está a favor del crecimiento a toda costa. Es hostil a la regionalización, sobre todo en el País Vasco, donde su principal notable es el banquero-diputado Michel INCHAUSPE.

b) El C.D.S. (Centre de Démocrates Sociaux): el partido de LECANUET, es la democracia cristiana, que era fuerte en el País Vasco y en las demás etnias de tradición religiosa fuerte: Bretaña, Alsacia. Aquí su principal representante es Michel LABEGUERIE, alcalde de Cambo y senador. Este partido, relativamente social, regionalista y basquizante, financieramente sostenido por el P.N.V. no pasa frecuentemente de las buenas intenciones. Ha perdido mucho estos últimos años, una vez que entró en el Gobierno.

c) El P.R. (Parti Républicain) es la organización de los liberales giscardianos. Salido de la vieja derecha liberal de Antoine PINAY, se fija un reformismo que se limita frecuentemente, en la práctica, a un revoque de fachada. Está débilmente implantado en el País Vasco al contrario de los otros dos partidos de derecha, y se encuentra muy próximo del C.D.S., al que se ha ligado en la U.D.F. (Union pour la Démocratie Française).

2) De izquierda:

a) El P.S. (Parti Socialiste) es el partido de MITTERRAND y de ROCARD. Reúne corrientes muy diversas, desde la vieja izquierda jacobina de los institutores hasta las fuerzas autogestionarias de la C.F.D.T. (sindicato socialista). Partidario de la integración europea y de la entrada de España, como el C.D.S. y los Giscardianos, se parece aun más a éstos por sus veleidades regionalistas. Está progresando en el País Vasco, aunque sus militantes tengan sobre la cuestión vasca posiciones divergentes y aún opuestas.

b) El P.C.F. (Parti Communiste Français), dirigido por Georges MAR-CHAIS, es una izquierda popular, con fuerte implantación obrera, muy marcada por una tradición jacobina. Hace en cierta manera pareja con el R.P.R. Los dos se encuentran frecuentemente por su nacionalismo francés, su concepción de un Estado fuerte y su política exterior no alineada sobre los dos grandes. El Partido Comunista Francés también es hostil a la integración europea y a la entrada de España. En el interior, la política de crecimiento del P.C.F. se apoyaría sobre numerosas nacionalizaciones y sobre un planteamiento estatal. Su jacobinismo queda aligerado por una voluntad de regionalización democrática, pero por el momento el P.C.F. no propone nada concreto en el País Vasco en lo que se refiere a las instituciones.

c) El P.S.U. (Parti Socialiste Unifié), laminado por el P.S., está representado en Bayona por un pequeño grupo de militantes.

3) De extrema izquierda

a) L.C.R. (Ligue Communiste Révolutionnaire): el partido de KRIVINE, está representado en Bayona por militantes activos pero poco numerosos. Preconiza para el País Vasco el derecho a la autodeterminación.

b) El P.C.M.L.F. (Parti Communiste Marxiste-Léniniste de France) es una organización maoísta que sostiene las luchas en las empresas y los barrios. No se preocupa por el momento del problema vasco.

B) Las fuerzas abertzales o nacionalistas

E.H.A.S (Euskal Herriko Alderdi Sozialista), creado el 30 de marzo de 1974 tras la prohibición del movimiento Enbata, preconiza a corto plazo la autonomía (interna) del País Vasco Norte, el bilingüismo integral, la industrialización planificada y el control de las tierras por los usuarios (agricultores o colectivos).

A medio plazo, sus objetivos son los de toda la izquierda abertzale: un País Vasco (norte y sur) libre, reunificado, vascófono y socialista.

II. — LAS FUERZAS QUE NO PARTICIPAN EN LAS ELECCIONES

A) Las organizaciones hexagonales

1) Un grupo feminista, G.L.F. (Groupe de Lutte des Femmes), de ideología trotskista, en Bayona.

2) Los ecologistas, bastante activos, sobre todo el grupo «Jeunes et Nature» y «Biarritz-écologie», no tienen, por otra parte, una ideología bien definida.

B) Las fuerzas abertzales

1) Un grupo feminista abertzale socialista, en Bayona, se dedica a tareas concretas: film sobre las ikastolas, etc.

2) Los autogestionarios:

a) El pequeño grupo Ezker Berri (nueva izquierda) trata de crear un partido que tendría por bases la ecología, la autogestión y el «socialismo humanista».

b) Un movimiento de hecho, con una ideología parecida pero con una base social más real se agrupa alrededor de los antiguos de Enbata, sobre objetivos concretos como son el departamento-región, el bilingüismo, el cooperativismo...

3) Las organizaciones del rechazo:

a) Los grupos clandestinos Iparretarrak, E.Z. y Hordago llevan una campaña de atentados, esencialmente contra objetivos turísticos, con una ideología abertzale socialista.

b) Los comités de apoyo a Xan parece que constituyen un movimiento de hecho que lleva acciones de sensibilización contra el turismo, el paro, la destrucción de la cultura vasca... con la misma ideología que los grupos clandestinos. Sus metas son las de toda la izquierda abertzale socialista.

I. — LES FORCES QUI SE PRESENTENT AUX ELECTIONS

A) Les partis hexagonaux

1) Ceux de droite:

a) Le R.P.R. (Rassemblement Pour la République): le parti de CHIRAC,

maire de Paris, est une droite populaire, dirigée par une nouvelle bourgeoisie «nationale». De tradition jacobine, elle veut un Etat fort et centralisé, fermé sur lui-même et menant une politique relativement neutraliste. Elle est opposée à l'intégration européenne et à l'entrée de l'Espagne dans le marché commun. A l'intérieur, elle est pour la croissance à tout prix. Elle est hostile à la régionalisation, surtout au Pays Basque où son principal notable est le banquier-député Michel INCHAUSPE.

b) Le C.D.S. (Centre des Démocrates Sociaux): le parti de LECANUET est la démocratie chrétienne, qui était puissante au Pays Basque et dans les autres ethnies de tradition religieuse marquée: Bretagne, Alsace. Ici son principal représentant est Michel LABEGUERIE, maire de Cambo et sénateur. Ce parti, relativement social, régionaliste et basquisant, financièrement soutenu par le P.N.V., s'arrête souvent au niveau des bonnes intentions. Il a beaucoup perdu ces dernières années, depuis qu'il est entré au gouvernement.

c) Le P.R. (Parti Républicain) est le parti de MITTERRAND et de ROCARD. Il rassemble des courants très divers, depuis la vieille gauche jacobine des instituteurs jusqu'aux forces autogestionnaires de la C.F.D.T. Partisan de l'intégration européenne et de l'entrée de l'Espagne, comme le C.D.S. et les Giscardiens, il se rapproche encore de ceux-ci par ses velléités régionalistes. Il progresse au Pays Basque, bien que ses militants aient sur la question basque des positions divergentes, voire opposées.

b) Le P.C.F. (Parti Communiste Français), dirigé par Georges MARCHAIS, est une gauche populaire, à forte implantation ouvrière, très marquée par une tradition jacobine. Il est en quelque sorte le pendant du R.P.R. Les deux se rejoignent souvent par leur nationalisme français, leur conception d'un Etat fort et leur politique extérieure non alignée sur les deux grands. Le P.C.F. aussi est hostile à l'intégration européenne et à l'entrée de l'Espagne. A l'intérieur, la politique de croissance du P.C.F. s'appuierait sur de nombreuses nationalisations et sur une planification étatique. Son jacobinisme est tempéré par une volonté de régionalisation démocratique, mais pour le moment le P.C.F. ne propose rien de concret au Pays Basque en ce qui concerne les institutions.

c) Le P.S.U., laminé par le P.S., est représenté à Bayonne par un petit groupe de militants.

3) Ceux d'extrême gauche

a) La L.C.R. (Ligue Communiste Révolutionnaire): le parti de KRIVINE est représenté à Bayonne par des militants actifs mais peu nombreux. Ils préconisent pour le Pays Basque le droit à l'autodétermination.

b) Le P.C.M.L.F. (Parti Communiste Marxiste-Léniniste de France) est une organisation maoïste qui soutient les luttes dans les entreprises et les quartiers. Il ne se préoccupe pas pour le moment du problème basque.

B) Les forces Abertzale

E.H.A.S. (Parti Socialiste du Pays Basque), créé le 30 Mars 1974 après l'interdiction du mouvement Enbata préconise dans l'immédiat l'autonomie (interne) du Pays Basque nord, le bilinguisme intégral, l'industrialisation planifiée et le contrôle des terres par les usagers (agriculteurs et collectivités).

A moyen terme, ses objectifs sont ceux de toute la gauche abertzale: un Pays Basque (nord et sud) libre, réunifié, bascophone et socialiste.

II. — LES FORCES QUI NE PARTICIPENT PAS AUX ELECTIONS

A) Les organisations hexagonales

1) Un groupe féministe, G.L.F. (Groupe de Lutte des Femmes), d'idéologie trotskyste, à Bayonne.

2) Les écologistes, assez actifs, avec notamment le groupe «Jeunes et Nature» et «Biarritz-écologie», n'ont pas par ailleurs une idéologie bien définie.

B) Les forces abertzale

1) Un groupe féministe abertzale socialiste, à Bayonne, s'adonne à des tâches concrètes: film sur les ikastolak...

2) Les autogestionnaires:

a) Le petit groupe Ezker Berri (gauche nouvelle) cherche à créer un parti qui aurait pour bases l'écologie, l'autogestion et le «socialisme humaniste».

b) Un mouvement de fait, ayant une idéologie semblable mais avec une base sociale plus réelle se groupe autour d'anciens d'Enbata, sur des objectifs concrets tels qu'un département-région, le bilinguisme, le coopérativisme...

3) Les organisations du refus:

a) Les groupes clandestins Iparretarrak, E.Z. et Hordago mènent une campagne d'attentats, essentiellement contre des objectifs touristiques, avec une idéologie abertzale socialiste.

b) Les comités de soutien à Xan semblent constituer un mouvement de fait qui mène des actions de sensibilisation contre le tourisme, le chômage, la destruction de la culture basque... avec la même idéologie que les groupes clandestins. Leurs buts sont ceux de toute la gauche abertzale socialiste.